

GRADUA: Kudeaketaren eta Informazio Sistemen
Informatikaren Ingeniaritzako Gradua

GRADU AMAIERAKO LANA

***IBILGAILUEN SAL-EROSKETA
KUDEATZEKO WEB SISTEMA BATEN
GARAPENA ETA BERE HEDAPENA
HODEIAN PAAS ZERBITZU BAT
ERABILIZ***

II ERANSKINA - ADMINISTRATZAILEAREN ESKULIBURUA

Ikaslea: Ojanguren, Asolo, Antton

Zuzendaria (1): Casquero, Oyarzabal, Oskar

Ikasturtea: 2017-2018

Data: Bilbao, 2018, 02, 12

Aurkibidea


Aurkibidea	1
Irudien zerrenda	1
1. Sarrera	2
2. Administrazio atala.....	2
2.1. Goiburua.....	2
2.2. Zerrenda	2
2.3. Ibilgailu berria.....	3
2.4. Ibilgailua editatu.....	4
2.5. Ibilgailua ezabatu	5
2.6. Grafikoak ikusi	5
3. Saioa itxi	6

Irudien zerrenda

Irudia 1 administratzailearen sarrera.....	2
Irudia 2 administrazio atalaren goiburua.....	2
Irudia 3 iragazkia eta administrazio atalaren zerrenda.....	3
Irudia 4 ibilgailu berri bat sartzeko pantaila	4
Irudia 5 ibilgailu bat editatzeko botoia	5
Irudia 6 ibilgailu bat ezabatzeko botoia	5
Irudia 7 grafikoen pantaila	6
Irudia 8 saioa ixteko botioa	6

1. Sarrera

Aplikazioaren administrazio atalera sartzeko aplikazioari /*administrazioa* baliabidea eskatuko zaio. Behin eskatua, aplikazioak administratzailearen login orrira eramango du. orri horretan erabiltzaile izen eta pasahitza sartu beharko dira 1. irudian ikusten de moduan. Erabiltzaile izen eta pasahitzik ez badituzu sistemaren administratzaileari eskatu beharko dizkiozu eta berak emango dizkizu kredentzialak.



Irudia 1 administratzailearen sarrera

2. Administrazio atala

2.1. Goiburua

Administrazio ataleko pantailen artean nabigatzeko goiburu bat egongo 2. irudian ikusten den moduan da bertan sakatzen pantaila bakoitzera jo daiteke.



Irudia 2 administrazio atalaren goiburua



2.2. Zerrenda

Kredentzialak ongi sartu eta gero, administrazio atalaren orrialde nagusira bidaliko gaitu aplikazioak. Atal honetan hiru elementu ikusiko ditugu: aplikazioaren goiburua, iragazkia, eta ibilgailu zerrenda (3. irudia). Goiburuak administrazio atalaren pantaila ezberdinen bitartean nabigatzea ahalbideratzen du. Iragazkiarekin aplikazioan dauden ibilgailuak bilatu daitezke hauekin elkar eragiteko. Eta azkenik ibilgailu zerrendan iragazitako parametroak betetzen dituzten ibilgailuak aurkituko dira. Ibilgailu bakoitzarekin bi ekintza gauzatu daitezke: ezabatu edo editatu.

KOTXEAK

KAMIOIAK


15 ibilgailu aurkitu dira. Ordenatu ▼

 <p style="font-weight: bold; color: red;">62.000 €</p> <p>BMW X6 xDrive30d 5p</p> <p style="font-size: x-small;">Diesel 2015 45.000 km Automatikoa 258 CV</p> <p style="font-size: x-small; text-align: right;">EDITATU </p>	 <p style="font-weight: bold; color: red;">19.900 €</p> <p>AUDI A3 Sportback 2.0 TDI 150cv Attraction 5p</p> <p style="font-size: x-small;">Diesel 2013 151.000 km Eskuzkoa 150 CV</p> <p style="font-size: x-small; text-align: right;">EDITATU </p>
--	---

Irudia 3 iragazkia eta administrazio atalaren zerrenda

2.3. Ibilgailu berria


Aplikazioan ibilgailu berri bart sartzeko Ibilgailu Berria pantailara jo behar da 4. irudikora. Horretarako aplikazioaren goiburuz baliatuko gara. Behin pantailan gaudela, lehenengo sartu beharreko datua ibilgailua kotxe bat edo kamioi bat izango den da. Ibilgailuaren mota zehaztuta dagoenean, marka eta modeloa hautatuko ditugu. Horretarako menu hedagarria zabalduko dugu eta marka eta modeloa hautatu. Sartu beharreko marka ez badago aukeren artean, Marka Berria botoia sakatuko da eta markaren izena eskuz idatziko da eta berdina gertatuko da modeloa ez badago. Marka berria sartu nahi bada modeloa idaztea ere izango da derrigorrezkoa. Eskuz idatzitako markak eta modeloak hurrengorako menu hedagarrian aurkituko dira. Marka eta modeloa zehaztu ondoren ibilgailuaren bertsioa sartuko da, parametro hau aukerazkoa da eta eskuz sartu behar da. Gero ibilgailuaren fabrikazio data sartu behar da UUUU-HH-EE formatuan. Ondoren ibilgailuak erabiltzen duen erregai mota aukeratu da: diesel, gasolina edo hibridoa. Ostean, zein motako aldagailua den esan behar da automatikoa edo eskuzkoa. Gero potentzia, kilometroak eta eserleku kopurua zehaztu behar dira zenbakiz eta milakoen punturik gabe. Ondoren ibilgailuaren kolorea idatzi beharra dago. Gero, ate kopurua eta prezioa sartu behar dira zenbakietan. Deskribapena gehienez 1000 karaktere eduki ditzake. Ibilgailuaren datuak prest daudenean, honen argazkiak igoko dira horretarako bi posibilidadetara. Lehena argazkiak zuzenean bere lekura arrastatzea. Eta bigarrena fitxategiak arakatzeko botoian sakatu eta nahi beste argazki hautatu. Posible da argazkiak modu bietan igotzea, hau da, multzo bat arrastatzen eta bestea fitxategi arakatzailerarekin. Argazkiren bat ezabatu nahi izanez gero, argazki honen azpian dagoen botoia sakatu behar da. Datu eta argazki guztiak sartu direnean Gorde botoia sakatu behar da ibilgailua gordetzeko. Ibilgailua gordetzen denean, zuzenean ibilgailua editatzeko pantailara berhelbideratuko du aplikazioak. Pantaila hau berdina izango da baina gordetzerakoan ibilgailuaren datuak eguneratuko dira Gorde botoia sakatzean.

Mota	Erregaia
Kotxe	Diesel
Marka	Aldagailua
BMW	Automatikoa
MARKA BERRIA	Kilometroak
Modeloa	120000
MODELO BERRIA	Potentzia (CV)
SERIE 1	143
Bertsioa	Eserieku kopurua
118d	5
Data	kolorea
2008-01-01	Beltza
Deskribapena	Ate kopurua
	5
	Prezioa
	10000
Argazkiak	
	
Elegir archivos DSC02084.jpg	
GORDE	

Irudia 4 ibilgailu berri bat sartzeko pantaila

2.4. Ibilgailua editatu


Ibilgailuen zerrendan ibilgailu bakoitza editatzeko aukera egongo da 5. irudian ikusten den moduan. Ibilgailuen informazio guztia editatu daiteke, argazkiak barne. Ibilgailuak editatzeko pantaila ibilgailu berri bat sortzeko pantailaren berdina izango da.



Irudia 5 ibilgailu bat editatzeko botoia

2.5. Ibilgailua ezabatu

Ibilgailu bat saltzen denean, aplikaziotik ezabatu beharra dago. Horretarako ibilgailuen zerrendan, ibilgailuaren ezabatu botoia sakatu behar da 6. irudian ikusten den moduan.



Irudia 6 ibilgailu bat ezabatzeko botoia

2.6. Grafikoak ikusi

Aplikazioaren goiburuaz baliatuz Grafikoen pantailara jo daiteke. Pantaila honetan erabiltzaileek egindako bilaketan informazioa modu grafikoan ikusteko aukera ematen da 7. irudian ikusten den moduan. Grafiko bat ikusteko lehenik eta behin ibilgailu mota zehaztu behar da, horretarako

mota etiketa duen menu hedagarrian kotxe edo kamioia hautatuko da. Modu lehenetsian kotxea hautatuko da. Ondoren prezio tarte bat zehaztuko da. Prezio tarte hau erailtzaileek egindako bilaketen tarteak zehaztuko ditu, adibidez, erabiltzaile batek 10.000 eurotik 30.000 eurotara bilaketa bat egin du. grafikoen pantailan zehaztutako tarte minimotik maximora bada bilaketa agertuko da, baina tarte 15.000 eurotik maximora bada bilaketa ez da grafikoan aurkeztuko. Grafikoan nahi bezain tarte zehaztu daitezke. Grafikoa barra horizontaleko izango da. Barra bakoitza marka bat errepresentatuko du eta markarik zehaztu ez diren bilaketentzako beste barra bat egongo da. Marka bat grafikotik kendu nahi bada grafikoaren legendan markaren izena klikatuz lortuko da. Grafikoan marka bat sakatzen bada, beste grafiko bat agertuko da, kasu honetan tarta motakoa. Grafiko honetan marka honen zein modelo bilatu diren aurkeztuko da.



Irudia 7 grafikoen pantaila

3. Saioa itxi

Azkenik, administratzailea administrazio ataletik irten nahi duenean goiburuan kokatutako Saioa Itxi atala sakatu beharko du, 8. irudian markatuta ikusten den moduan. Sakatzerakoan, administratzailearen saioa itxiko da eta *login* orrira bueltatuko da. Horrela, edozein ordenagailutik sartu daiteke administrazio atalera geroago beste edonor ez dela sartuko ziurtatuz.



Irudia 8 saioa itxeko botioa